

Nafarroaren ikasbidea

El Diario Vasco, 1986-06-27: 37.

Eusko Alderdi Jeltzalearen magalean hasi eta hezi garenontzat gure Alderdiari gertatzen ari zaiona oso da mingarria; ez dut esaten ni bezala "kritikoa" den batentzat bakarrik, baita "ofizialista" denarentzat ere; neuk hala uste.

Gaur gaizki sentitzen ez dena, ez da bihotzez eta buruz abertzalea.

Gauza asko esan nezake gai honetaz, eta esango dut beste garai eta modu batean; baina gaur sentipen hauek adierazteko dagoen premia biziarekin, ahal duda laburren eta ergien erakusten digun zerbait esan nahi nuke.

Aipa dezadan Nafarroan hauteskunde hauetan gertatu denaz zerbait.

Nafarrak EAJ-ri bota izan edo oraingoan bota dioten herriak, 51 dira. Abaurrea Alta-tik hasi eta Villava-raino (ikus *Deia*, 1986go ekainak 23). Berrogei eta hamaika herri hauetatik ez da *Deian* irabazi bat ere aipatzen, eta galdu, berriz, asko: Alsasua 302-92: 210; Aoiz 119-23: 96; Cascante 16-11: 5; Estella-Lizarra 2.421-83: 2.338 (ez dago Irujo begira!); Etxalar 88-41: 47; Etxarri Aranaz 280-93: 187; Huarte-Arakil 108-32: 76; Lesaka 460-94: 366; Otxagabia 54-27: 27; Peralta 26-21: 5; Sanguesa: 91-26: 65; Tafalla 310-53: 257; Tudela 139-57: 82; Bera Bidasoa 444-176: 268; denetara herri hauetan galduak: 4.029.

Gauzak honela, Nafarroan lehen lortu genituen 12.156 botoak (1982 urteko hauteskundeak) 3.487an geratu dira (*Deia*, ekainak 23, XIX or.): ia laurdena; *galduak, beraz: 8.669*.

Hemen dramatikoa dena hau da: 8.669 botodunak, botodun abertzaleak, EAJ-ren jarraitzaileak, esan nahi dute ez daudela konforme orain arte EBBek Nafarroarekin izan duen jokabideaz, eta batez ere NBB faktikoarekin, behatzez izendatuarekin, Nafarroako alderdikideen artean aukeratua izan ez den NBB gestorarekin.

Negargarriena kasu honetan zera da: ez diotela beste inola bere asmoak erakusteko biderik libre utzi. Eta egokiera hau hartzera behartuak izan direnak, ez dira, beraz, lau izan, ezta hamalau ere, baizik eta 8.669 alderdikide; eta non, eta Nafarroan!

Demokratikoki bideak jarrai nahi dituen Euzkadi Buru Batzarrak seinale honi begiratu behar dio, eta begiratz gero, kontuan hartu. Euzkal Alderdi Jeltzaleak ezin du gai hau espiritu erreglamentista batekin ezikusia egin edo mezpresatu, ez baitute ageriko beste medio demokratikorik ibiltzeko aukerarik izan!

Erroetatik hasi behar da Alderdi barruan justizia egiten; gainontzeko ihesbideak ez gaituzte galmenera besterik eramango.